

Pasaiaiko bi euskaltegietan zabalik da izena emateko epea; udalaren laguntzaz eskaintza malgua antolatu dute euskaltegiek, ikasleen askotariko nahi, behar, eta gustuei erantzuteko asmoz.

Zurekin eta zuretzat pentsatuta

Nor bere neurriko ikastaroa topatzeko inongo arazorik ez izateko

moduko eskaintza: horratx bi euskaltegiek eginga duten apustua. Eta xede horri begira Pasaiaiko Udalaren laguntza dute. Elkarrekin antolatu dute aurtengo ikasturterako eskaintza, «berri-tzailea» eta euskara ikasi edota hobetu nahi duen edonorentzat aproposa.

Euskaltegietara jotzen duten askotariko kolektiboak aztertu, eta haien behar espezifiketatik abiatuta, ahalik eta erantzun eraginkorrena ematea da asmoa. Guztira, lau talde edo kolektibo jo dituzte begiz Pasaiaiko euskaltegietan, eta horientzat ikastaro berezituak prestatu. Gazteak, langabetuak, gurasoak eta merkatariak. Horiexek dira bereizi dituztenak.

Diru laguntzak

Ikasleek euskara ikasteko bidean ahalik eta oztopo gutxien topatzea da euskaltegien nahia, eta horretan ere Pasaiaiko Udalaren babesa dute. Beka sistema baten bidez, diruz laguntzen die udalak euskara ikasteko erabakia hartzen dutenei. Hala, nabarmentzekoa da langabetuentzat ikastaroak erabat doakoak direla, eta gainerako kolektiboetako kideei, berriz, ikasturtean zehar %85eko asistentzia frogatuz gero, matrikula osorik itzultzen dietela.

Erraztasunak, beraz, izan badira, eta horiek jakinarazita eta abantailak ezagututa, pausu hori ematea falta da, euskara ikastera animatzea. Egiteko horretan eskaera zehatz bat ere badute eskaintzaren arduradunek: «Erreportaje honen irakurle gehienak euskaldunak izango direnez, irakurritakoa euskara ikasteko gogoa agertzen dutenei jakinarazteko eskatu nahi genieke». Eskaera euskaldunentzat, eta gonbidapena, berriz, euskararen unibertsoan murgildu nahi duen ororentzat.

zatoz
gurekin
euskal-
tegira



Euskaltegiak

TXIRRITA AEK EUSKALTEGIA

Antxo. Zumalakarregi, 9.
Harremanetarako: 943 52 55 45.
pasaia@aeak.org.

UDAL EUSKALTEGIA

Trintxerpe. Euskadi etorbidea, 61.
Harremanetarako: 943 00 43 40.
euskal@pasaia.net.

@ Informazio gehiago nahi izanez gero, bisitatu webgune hau: www.pasaia.eus

Ikastaroak

GAZTEAK

Eskolak eta tailerrak. Euskara ikasteko eskolak eta gazteen gogoko gaiak euskaraz ikasteko aukera ikastaro berean.

Tailerrak. Lantzeko gaiak gazteek aukeratuko dituzte.

Astean 5 ordu. 3 eskola-ordu eta 2 tailer-ordu. Astelehenetan eta asteazkenetan ordu eta erdiko eskolak, eta ostegunetan bi orduko tailerra.

Iraupena. Urria-ekaina.

Doan izateko aukera: Prezioa: 165 euro. Bi alditan ordaintzeko aukera egongo da, %50 azaroan eta %50 abenduan. Asistentziaren %85 gainditzen duenari matrikula osorik itzuliko zaio.

Bi adin tarte. 16-20 urte bitartekoak eta 20-30 urte bitartekoak.

LANGABETUAK

Egunean 5 ordu eta astean 4 eskola-egun. Astelehenetik ostegunera bitartean.

Hiruhileko ikastaro trinkoak. Urria-abendua bitartekoa, urtarrila-martxoa bitartekoa eta apirila-ekaina bitartekoa.

Matrikula. Doan.

Asistentzia. %85 gainditzen ez duenak ikastaroa amaitutakoan matrikula ordaindu beharko du.

GURASOAK

Gaiak. Gurasoen intereseko gaiak jorrotzen dira eskoletan.

Haurrei begirakoa. Umeek ikastetxeetan lantzen dituzten abesti eta jolasak ikasten dira.

Eskolan bertan. Haurra eskolatuta dagoen ikastetxean bertan egin daiteke ikastaroa.

Iraupena. Astean 6-8 ordu, astean bi edo hiru egunetan, urria-ekaina bitartean.

Prezioa. 153,11 euro balio du matrikulak, baina doan egin daiteke, asistentziaren %85 betez gero, matrikula osorik itzultzen dutelako.

NEGOZIOAK

Merkataria. Online ikastaroak, dendan bertan.

Autoikaskuntza. Astean lau ordu, dendariak, bere kabuz.

Mintzapraktika. Astean ordu eta erdi, euskaltegian, merkatarien taldea elkarrekin.

Tutoretza. Astean ordubeteko. Irakaslea dendara joango da asteko lanak erreparatzera

Iraupena. Urria-ekaina.

Ikastaroa doan egin daiteke. 116 euro balio du matrikulak, baina asistentziaren %85 gainditzen duenari matrikula osorik itzuliko zaio.



«Gure bezeroek ere euskaraz hitz egiten dute; garrantzitsua da ikastea»

Amalia Pouzas
Arrain saltzailea



«Etxean geratu ordez, zergatik ez hasi euskaltegian?»

Mertxe Urdanpilleta
Langabetua



«Klaseak jarraitzeko errazak dira, eta oso dinamikoak»

Josean Lacalle
Udaltzaina



«Eskolan bertan ikasten dugu, seme-alabak eskolan dauden bitartean»

Maria Paisal
Gurasoen taldeko kidea

Merkatarien taldean ari zara euskara ikasten. Noiz eta zergatik erabaki zenuen euskaltegira jotzea?

Nire euskara maila arrandegian bezeroekin elkarriketa arruntak edukitzeko ona da, baina nik aurreratu nahi nuen, hobetu, eta horregatik eman nuen izena.

Zenbat denbora daramazu?

Lehenengo ikasturtean hasi nintzen.

Eta errepikatzeke asmoa duzu?

Bai, taldea sortzen bada, joango naiz.

Beraz, esperientzia positiboa izan da orain artekoa.

Bai, oso ondo moldatu naiz irakaslearekin, baita beste ikasleekin ere. Esamoldeak ikasi ditugu, esaera zaharrak...

Nolakoak dira merkatarientzako euskara eskolak?

Oso interesgarriak.

Zure arrandegia, Villanueva, merkataritzan euskara sustatzeko sarekoa ere bada. Zergatik erabaki zenuen zure arrandegia sarera atxikitzea? Zer onura ekartzen dizkio euskarak edozein negoziari?

Euskara gure hizkuntza da, eta uste dut, horrekin dena esanda dagoela. Gure bezeroek euskaraz hitz egiten dute, eta garrantzitsua da ikastea.

Ziurrenik egongo da inguruan pausua emateko gogoz dagoenik. Nola animatu?

Izena emateko esango nieke, argi eta garbi. Nik badakit batzuetan zaila dela, denbora gutxi dugulako. Ni, mintzapraktikara baraurik joaten nintzen, baina esfortzuak merezi duela uste dut.

Noiz eta zergatik erabaki zenuen euskaltegira joatea?

Aspaldi hasi nintzen euskaltegian. Ez nekien euskaraz, ni euskalduna sentitzen naiz, eta erabaki dut euskara ikastea.

Lehen lan egiten nuen, baina urtebete da lana galdu nuela. Orduan jakin nuen euskara ikastaro trinkoak zeudela langabebetuentzat, eta erabaki nuen izena ematea.

Langabetuen ikastaroen ezagarrri garrantzitsuenetakoa, hain zuzen, hori da, ikastaroak trinkoak direla, bost ordukoak eta hiruhilekoak.

Abantaila ikaragarria da hori. Nik beti etxean gazteleraz egiten nuen, euskararekin moldatzen naizen arren, joera hori nuen. Baina orain, bost orduz nagonetik euskaltegian, joera aldatu eta nire etxean euskara ere entzuten da. Errazago ateratzen zait orain. Bost ordu, ordu asko dira, luxu bat da, eta gainera, erabat doan.

Metodologia nolakoa da?

Normalean, lehenbizi, gramatika, gero irakurketa, baita idazlanak eta entzumena ere. Pixka bat denetik egiten dugu, ez aspertzeko.

Hasieran, beldur nintzen, bost ordu gehiegi ez ote ziren izango. Baina eskolak dinamikoak dira, eta irakasleak oso profesionalak. **Zoritxarrez, gure herrian, langabetu asko dago. Euskaltegira gonbidatuko zenituzke?**

Nik esango nieke ez dutela ezer galduko. Etxean geratu ordez, zergatik ez hasi euskaltegian? Ni oso gustura nago, eta nire inguruan denak. Normalean denok errepikatzen dugu.

Antxoko euskaltegian azken bi ikasturteak egin dituzu. Zure kasuan, zein izan zen euskara ikasten hasteko arrazoia?

Lehenik eta behin, lana. Ni udaltzaina naiz, eta Donostiako Udalean bigarren profila eskatzen digute lanerako. Hori izan zen arrazoi garrantzitsua. Baina baita euskara ikasi eta erabili nahi nuelako ere.

Gurasoen taldean parte hartzen duzu orain dela bi urtetik. Zergatik talde horretan?

Nire kasuan ez dago horretarako arrazoi berezirik.

Azken bi urte hauetan zer da euskaltegiak eman dizun onena?

Pixkanaka euskara ikasten ari naizela ikusteak, eta kalean euskaraz egin ahal izateko prestatzen ari naizela. Nik hori balortzen dut gehien.

Euskara ikasi nahi duzu eta erabili. Erabilerak kezkatzen zaitu gehien. Norabide horretan aurrerapausoak egin dituzula igarri duzu?

Bai, noski.

Eskolak nolakoak dira? Gustuko dituzu?

Bai. Klaseak jarraitzeko errazak dira, eta oso dinamikoak. Ez gara batere aspertzeko.

Betidanik euskara ikasi nahi, baina oraindik euskaltegira jotzeko urratsa egin ez duen horri zer esango zenioke zuk?

Animatzeko. Etortzeko guregana, klaseak ondo daudelako, eta jendea eta irakasleak oso jatorrak direlako. Giro oso ona egoten da beti klasean.

Zuk jarraitzeko asmoa duzu behintzat, ezta?

Bai, zalantzarik gabe.

Galiziarra jaiotzez, Bidebieten bizi zara. Noiz eta zergatik erabaki zenuen euskara ikastea?

Lehenik eta behin, lanaren kontuarengatik, eta bigarrenik, nire alabengatik. Haien ingurua oso erdalduna da, eta Karmengo Ama eskolan saiakera berezia egiten dute haurrak euskarara hurbiltzeko. Nik ere horretan inplikatu behar nuela erabaki nuen.

Euskara ikasten hasi izanak zein eragin izan du zure alabekiko harremanean?

Orain, alaba zaharrena eta biok, elkarrekin irakur dezakegu euskaraz, eta bien artean aritzen gara, ezagutzen ez ditugun hitzak ikasten. Batzuetan berak niri irakasten dizkit, baita aldearantziz ere. Modu horretan, nire alabak, etxean ere entzuten du euskara, eta bere egiten du.

Nik, oraingoz ezin diot euskaraz hitz egin, baina jolasak egiten ditugu tarteka, *Ikusi Makusi* eta antzekoak... Etxeko lanekin ere nabaritu dut. Orain, behintzat, ariketen enuntziatua irakurri eta ulertzen dut.

Esperientzia honetan zer da zuretzat garrantzitsuenak?

Zerotik abiatu garenontzat hizkuntza pixka bat zaila da, baina konturatzen zara ari zarela ikasten. Gainera, ikastaroa, gurasontzat oso aproposa da, ordutegia erabat bateragarria delako haurren zaintzarekin. Eskolan bertan ikasten dugu, gure seme-alabak eskolan dauden bitartean.

Horrez gain, talde oso jatorra da, eta horrek asko errazten du dena, hitz egiteko lotsa galtzen delako.